

BESTELAKO XEDAPENAK

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

453

AGINDUA, 2025eko urtarrilaren 21ekoa, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuarena, Cambridgeko Unibertsitateko Clare Hall-en ikertzaile bisitari izateko laguntzen deialdia egiten duena.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak eta Cambridgeko Unibertsitateak hitzarmena sinatu dute ikertzaileek Clare Hall-en egonaldia egin dezaten.

Clare Hall College 1966an sortu zuten, eta ikasketa aurreratuen zentroa da Cambridgeko Unibertsitatearen barruan. Ikertzaile bisitarietzako programa arrakastatsua du. Programa horri esker, mundu osoko akademikoak bizi dira eta lan egiten dute Cambridgen, bederatzi hilera arteko egonaldietan. Cambridgeko Unibertsitateko gradudunen bost ikastegietako bat da. Zentro horretan, Euskal Herriari lotutako gaietan espezialista diren ikertzaile bisitariak izatea garrantzitsua izango da Euskal Herriari buruzko ezagutza garatzeko, eta Cambridge eta EAEn arteko lankidetzan oinarritutako ikerketa sendotzeko.

Deialdi hau ebazteko, kontuan izango dira administrazio publikoen dirulaguntzak emateko jarduera arautzen duten printzipioak –publikotasuna, lehia, objektibotasuna, ezarritako helburuak betetzeko efikazia, baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia, gardentasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza–, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean ezarritakoaren arabera, eta bat etorritik Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren oinarritzko manuekin (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez garatu zen legea) eta laguntza eta dirulaguntzei aplikatu beharreko gainerako xedapenekin, eta eskura dauden baliabide ekonomikoak aplikatuko dira agindu honetan ezarritako irizpideen arabera. Halaber, adierazi behar da Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren 2025eko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak deialdi hau jasoko duela 1. helburu estrategikoa betetzeko dirulaguntza-lerroen barruan.

Eskabideak egiteko, inskripzio-inprimakia bete beharko da, zeina bide telematiko eskuragarri egongo baita, sailaren egoitza elektronikoan, betiere 4/2022 Dekretuaren 3. artikulua aplikatuz (4/2022 Dekretua, urtarrilaren 11koa, zeinaren bidez bitarteko elektronikoak erabiltzeko betebeharra arautzen baita ikerketa arloko laguntzetarako eta sarietarako eskabideetan eta gainerako izapideetan).

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren bidez (2024ko ekainaren 24ko EHAA, 123. zk.), Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailari esleitu zitzaion ikerketa teorikoa eta aplikatua bultzatu eta koordinatzeko lana.

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen helburua da gehienez lau dirulaguntza emateko oinarriak ezartzea eta prozedura arautzea, 2025-2026ko ikasturtean Cambridgeko Unibertsitateko Clare Hall-en ikertzaile bisitari gisa aritzeko egonaldiak finantzatzeko.

2.– Modalitateak eta iraupena.

Ikertzaile doktoreen mugikortasun-programak aukera ematen du Clare Hall-en 4 pertsonara arteko ikerketa-egonaldia egiteko, honako modalitate eta baldintza hauen barruan:

2.1.– Visiting Fellow (gehienez, 2 pertsona). Visiting Fellow ikertzaileen egonaldia ikasturte akademikoaren barruan egingo da; urriaren 1ean hasiko da, eta 9 hilabete iraungo du gehienez, eta 4,5 gutxienez.

Euskadi-Erresuma Batua ikerketa kolaboratiboa hezkuntza-arloan sustatzeko interesari erantzuteko, Visiting Fellow plazetako bat ikertzaileentzat izango da, honako arlo hauetan:

- Digitalizazioa: Metodologia eta gaitasun teknopedagogikoak eta ingurune digitalean eta ingurune presentzialean integratzea.
- STEAM proiektuak: ikasleek gaitasun zientifiko-teknologikoak eta jarrerazko alderdiak eskuratzea STEM eremuetarantz, eta arreta berezia jartzea hezkuntza matematikoan.

Bigarren Visiting Fellow plaza edozein jakintza-arlotako ikertzaileei esleituko zaie.

Hezkuntzaren arloan hautagai lehiakorrik ez badago, plaza hori beste edozein jakintza-arlotako ikertzaileei esleitu ahal izango zaie.

2.2.– Post Visiting Fellow (gehienez, 2 pertsona). Post Visiting Fellow ikertzaileen egonaldia ikasturte akademikoaren barruan egingo da; urriaren 1ean hasiko da, eta 2 hilabete iraungo du gehienez, eta 2 aste gutxienez. Modalitate hori eskuratu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ikasturteko deialdia baino lehen Clare Hall-eko Visiting Fellow (Life members) izatea.

Ezagutza-arlo guztietako Post Visiting Fellow eskatzaileak onartuko dira.

Bi modalitateetan, egonaldia 2025-2026 ikasturtean egin beharko da, eta ikasturtea 2025eko urriaren 1ean hasiko da.

2. artikulua.– Onuradunen betekizunak.

Agindu honetako laguntzen onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan araututako betebeharren araubidea bete beharko dute. Zehazki, honako hauek bete beharko dituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta egotea, eta 2025eko urtarrilaren 1ean gutxienez urtebeteko antzinasuna izatea. Hala ere, antzinasun hori duten baina atzerrian bizi direnen eskabideak ere onartuko dira, baldin eta atzerrian bizi diren espainiarren erroldaren (AEE) bidez Euskal Autonomia Erkidegoan auzotasuna badute eta atzerrian bizi aurreko azken auzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoan izan bada.

b) Doktore gradua izatea.

c) EAEko ikerketa-zentro edo unibertsitate batean lan-lotura iraunkorra edo kontratu mugagabea izatea. Onartuko dira, halaber, irakasle laguntzaile edo Ikerbasque Research Fellows gisa finkatzeko bidean dauden kontratuak dituzten pertsonen eskaerak. Kontratuek gutxienez 2 urteko antzinasuna izan beharko dute eskaera egiteko unean.

d) Post Visiting Fellow modalitatean, hautagaiek Clare Hall-eko Visiting Fellow (Life members) izan beharko dute, deialdi honen aurretik.

e) Cambridgeko Unibertsitateko sail edo fakultate batean onartuta egotea.

f) Ingeles hizkuntzaren ezagutza-maila nahikoa izatea, unibertsitate-komunitatean lehen egunetik bizi eta lan egiteko gai izan daitezten.

3. artikulua.– Eskabideak formalizatzea eta aurkezteko epeak.

1.– Eskabidea egiteko, inprimaki bat bete beharko da, zeina bide telematikoz eskuragarri egongo baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0174007>), 4/2022 Dekretuaren 3. artikulua aplikatuz (4/2022 Dekretua, urtarrilaren 11koa, zeinaren bidez bitarteko elektronikoak erabiltzeko betebeharra arautzen baita ikerketa arloko laguntzetarako eta sarietarako eskabideetan eta gainerako izapideetan).

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak aplikazio elektronikoaren bitartez erantsiko zaizkio eskabideari. Horretarako, hautagaiak alta eman beharko du erabiltzaile gisa, eta aplikazio horretan zehaztutako jarraibideak bete beharko ditu.

Aplikaziora ziurtagiri elektronikoa baten bidez sartu beharko da. Helbide elektronikoa honetan daude jasota elektronikoki identifikatzeko onartutako sistemak: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>. Aplikaziora sartzen diren pertsonak baimena ematen diote Zientzia Politikako Zuzendaritzari (deialdia kudeatzen duen organoari) nortasun-datuak administrazio eskuduneari egiazta ditzan, bitarteko elektronikoaren bidez edo eskuragarri dituen bestelako baliabideen bidez.

2.– Eskabide telematikoa osorik betetakoan, eta artikulua honen 5. apartatuan adierazitako agiriak aplikazioaren bidez erantsi ondoren, eskatzaileak eskabidea erregistratzeko prozesu elektronikoa osatu beharko du; izan ere, sinadura elektronikoa bidez eskabide bati balioa emateko, jasota geratu behar da erregistratu dela. Hori ziurtatzeko, eskatzaileak agiriaren erregistro-elektronikoa/aurkezpen-erregistroa eskura dezake, «Ikusi egiaztagiria E/E» aukerarekin. Ez da onartuko erabat modu elektronikoa bete eta erregistratu ez den eskabiderik.

Eskabidea identifikatzeko zenbaki bat izango du inprimaki ofizialak. Inprimaki ofiziala eskuz edo elektronikoki aldatuz gero, eskabidea automatikoki baztertuko da.

3.– Eskabidearen barruan, erantzukizunpeko adierazpena dago.

4.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.– Eskatutako dokumentazioa.

Zerrenda honetako agiriak aurkeztu beharko dira, aplikazioaren bitartez:

a) Doktore-tituluaren egiaztagiria.

b) Errolda-egiaztagiria. Atzerrian bizi direnen kasuan, hauek aurkeztuko dira: Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egon izanaren agiria (historikoa) eta atzerrian bizi diren espainiarren erroldan (AEE) erregistratuta egotearen ziurtagiria.

c) Ingelesez idatzitako curriculum akademiko normalizatu eta zientifikoa.

d) Cambridgeko Unibertsitateko Clare Hall-engaratu beharreko ikerketa-proiektua, ingelesez idatzia.

e) Cambridgeko Unibertsitateko sail edo fakultate batean onartua izan dela adierazten duen gutuna.

f) Cambridgeko Unibertsitateko Clare Hall-eko «Application for a Visiting Fellowship» eskaera-inprimakia.

g) Ikertzaileak plaza finkatua duela edo finkatzeko bidean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria. Horretarako, zerbitzu-orria aurkeztea onartuko da, zeinean jasoko baitira antzinatasuna eta hautagaiaren eta entitate eskatzailearen arteko kontratu-harremana. Zerbitzu-orria aurkeztu ezin bada, entitate eskatzailearen ziurtagiri bat aurkeztu beharko da.

h) Eskatzailea unibertsitateko irakaslea bada, unibertsitateko legezko arduradunak sinatutako dokumentu bat aurkeztuko da, eskatzaileari baimena ematen diona laguntzak iraun bitartean kanpoan egoteko.

i) Hautagaiek beren irakaskuntza- eta ikerketa-lana ezagutzen duten ospe aitortuko hiru ikertzailearen aipamen-gutunak lortu beharko dituzte. Gutun horiek ingelesez idatzita egongo dira, eta Zientzia Politikako Zuzendaritzari zuzenduko zaizkio.

Post Visiting Fellow modalitatearen kasuan, aurrekoez gain, beste hauek aurkeztu beharko dira:

j) Hautagaia «Life Member» dela egiaztatzen duen agiria.

k) Clare Hall-en egindako egonaldiari buruzko txosten zientifiko-teknikoa, aprobetxamendua eta Cambridgeko Unibertsitatearekiko lankidetzaren emaitzen adierazleak jasota.

4. artikulua.– Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Dirulaguntza-eskabideak guztiz betetzen ez badira, edo nahitaezko agiriak aurkezten ez badira, Zientzia Politikako Zuzendaritzak eskatzaileei eskatuko die 10 eguneko epean hutsak zuzendu ditzatela edo nahitaezko agiriak aurkez ditzatela. Halaber, ohartaraziko die ulertuko dela, hala egin ezean, haien eskabidean atzera egin dutela, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan xedatutakoarekin.

Zuzentzeko errekerimendua jakinarazteko, 8. artikulua 2. apartatuan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

5. artikulua.– Laguntza kudeatzeko organoa.

Zientzia Politikako Zuzendaritzari dagokio laguntza hau kudeatzea.

6. artikulua.– Hautaketa-batzordea. Ikertzaileak hautatzeko irizpideak.

1.– Hautaketa-batzordeak txosten bat egingo du, ebaluazioaren emaitza jasoko duena, eta organo kudeatzaileak egingo du ebazpen-proposamena.

Honako hauek osatuko dute Hautaketa Batzordea:

a) Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordea edo hark eskuordetutako pertsona. Batzordeburua izango da.

b) Clare Hall-eko «Fellowship Committee»ko presidentea.

c) Bi aditu akademiko gehienez, bata Cambridgeko Unibertsitatekoa eta bestea Euskal Autonomia Erkidegokoa. Aditu horiek esperientzia handia izango dute hitzarmen honetako diziplina garrantzitsuetan, eta Clare Hall-eko «Fellowship Committee»ko presidentek eta Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordeak aukeratuko dituzte, hurrenez hurren. Gaien esparrua zabala bada, alderdiek bigarren aditu akademiko bat proposatu ahal izango dute.

2.– Hautaketa-batzordeak bi fasetan ebaluatuko ditu hautagaiak aurkeztu dituzten eskabideak, irizpide hauei jarraikiz, eta, betiere, hautatutako modalitatea kontuan hartuz:

2.1.– Visiting Fellow modalitatea:

a) Lehiaketaren lehenengo fasea.

– Curriculum akademikoa eta zientifikoa: 10 puntu.

- Argitalpenak, hitzaldiak, ezagutza-transferentzia: 4 puntu.
- Zuzendutako ikerketa-proiektuak eta tesiak: 3 puntu.
- Irakaskuntza-lana graduatan eta graduondoetan: 3 puntu.

Argitalpenen kalitateari dagokionez, balio berezia emango zaie beren esparruko erreferentzia-indizeetan sartutako aldizkarietan argitaratu direnei, Ikerketa Jardueraren Ebaluazio Batzorde Nazionalaren 2023ko abenduaren 5eko Ebazpenean jasotako irizpide espezifikoen arabera ([https://www.boe.es/eli/es/res/2022/11/21/\(1\)](https://www.boe.es/eli/es/res/2022/11/21/(1))) https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2023-25537). Ebazpen horretan eman ziren argitara ebaluazio-esparru bakoitzean onetsitako irizpide espezifikoak.

– Ikerketa-proiektua: 10 puntu.

- Kalitatea eta interes zientifikoa: 7 puntu.
- Ikerlanaren emaitzek euskal gizartean duten inpaktua: 3 puntu.

– Ikertzailearen prestasuna: 5 puntu.

- Bederatzi hilabeteko egonaldia: 5 puntu.
- Lau hilabete eta erdiko egonaldia: 2 puntu.

b) Lehiaketaren bigarren fasea.

Hautaketa-batzordearekin elkarriketa izango dute, eta proiektua aurkeztuko diote, ingelesez: 10 puntu.

2.2.– Post Visiting Fellow modalitatea:

a) Lehiaketaren lehenengo fasea.

– Curriculum akademikoa eta zientifikoa: 10 puntu.

- Cambridgeko Clare Hall-ekin alde zuzeneko izandako lankidetzaren ondoriozko argitalpenak, hitzaldiak eta ezagutza-transferentzia: 2 puntu.
- Bestelako argitalpenak, hitzaldiak, ezagutza-transferentzia: 2 puntu.
- Zuzendutako ikerketa-proiektuak eta tesiak: 3 puntu.
- Irakaskuntza-lana graduatan eta graduondoetan: 3 puntu.

Argitalpenen kalitateari dagokionez, balio berezia emango zaie beren esparruko erreferentzia-indizeetan sartutako aldizkarietan argitaratu direnei, Ikerketa Jardueraren Ebaluazio Batzorde Nazionalaren 2023ko abenduaren 5eko Ebazpenean jasotako irizpide espezifikoen arabera ([https://www.boe.es/eli/es/res/2022/11/21/\(1\)](https://www.boe.es/eli/es/res/2022/11/21/(1))) https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2023-25537). Ebazpen horretan eman ziren argitara ebaluazio-esparru bakoitzean onetsitako irizpide espezifikoak.

– Ikerketa-proiektua: 10 puntu.

- Kalitatea eta interes zientifikoa: 7 puntu.

- Clare Hall-en egindako egonaldiak nolako eragina izan duen egun egiten diharduen ikerketa-lanean: 3 puntu.

– Ikertzailearen prestasuna: 5 puntu.

- Bi hilabeteko egonaldia: 5 puntu.

- Bi hilabetetik beherako egonaldia: 2 puntu.

b) Lehiaketaren bigarren fasea.

Hautaketa-batzordearekin elkarrizketa izango dute, eta proiektua aurkeztuko diote, ingelesez: 10 puntu.

3.– Aurkeztutakoari buruzko galderak egin ditzake hautaketa-batzordeak, edo laguntzaren xedearekin lotutako beste alderdi batzuei buruzko galderak. Era berean, ingelesa jakiteko baldintza betetzen dela egiaztatuko du, 3.f) artikulua adierazi bezala. Hautaketa-batzordeak gehienez lehenbiziko bost hautagaiari egingo die elkarrizketa. Hala ere, hautagai gehiago elkarrizketatu ahal izango dira, hautaketa-batzordeak egoki irizten badiu aurkeztutako hautagaiak aintzat hartuta.

4.– Batzordeak, hautagaiak ebaluatzen amaitu ondoren, onuradunak aukeratuko ditu, eta erreserben zerrenda osatuko dutenen lehentasun-ordena ezarriko, adjudikaziodunen batek uko egiten badiu edo laguntzarako eskubidea galtzen badu. Lehiaketaren bi faseetan guztira puntu gehien lortzen dituen izango da adjudikazioduna. Berdinketarik badago, elkarrizketaren fasean puntuaziorik onena izan duena hautatuko da.

5.– Visiting Fellow modalitatean, adjudikaziodunak ezin badiu bederatzi hilabeteak bete, puntuazio handiena jaso duen bigarren hautagaiari aukera emango zaio egonaldi osoa amaitu arte geratzen den epealdia betetzeko.

6.– Post Visiting Fellow modalitatean, 2 hautagai aukeratuko dira, gehienez.

7.– Clare Hall-en Gobernu Kontseiluak hautagaiari buruzko iritzia emango du, eta, bere irizpideen arabera eta arrazoiak emanez, proposatutako hautagairen bat onartu edo guztiak baztertu ahal izango ditu. Post Visiting Fellow modalitatean, Clare Hall-en Gobernu Kontseiluak aukera izango du adjudikaziodunen egonaldietarako aurreikusitako datak aldatzeko, Clare Hall-en ostatu hartzeko aukerak hala justifikatzen badute.

8.– Hautaketa-batzordeak laguntza eman gabe utziko du, baldin eta eskabiderik ez badago edo hautagaiak ez badute balorazio osoaren % 50 gainditzen. Era berean, egonaldi partzialetako epealdiren bat ere hutsik gera daiteke.

7. artikulua.– Ebazpena eta adjudikazioa.

1.– Aurreko artikuluan xedatzen den hautaketa-prozesua amaitu ondoren, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez adjudikatuko dira modalitate bakoitzeko laguntzak, deialdia EHAA-n argitaratu eta hurrengo sei hilabeteetan.

2.– Ebazpenean, hauek adieraziko dira: nor diren pertsona onuradunak; noiz hasi eta amaituko den egonaldia; laguntzaren zenbatekoa, 9. artikuluan aurreikusitako kontzeptuen arabera banakatuta, eta, hala badagokio, nor diren ordezkioak eta zer hurrenkera duten, eta zer hautagai ukatu edo baztertu den eta zergatik.

3.– Egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz jakinaraziko da aipatutako ebazpena: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>. Era berean, jakinarazpen elektronikoa bat bidaliko da EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>). Ziurtagiri elektronikoa bidez sartu beharko da bertara.

Abisua bidaliko da interesdunak eman duen gailu elektronikora edo helbide elektronikora, jakinarazpena egoitza elektronikoa eskuragarri duela adierazteko.

Hargatik eragotzi gabe aurreko 3. apartatuan ezarritakoa, Zientzia Politikako Zuzendaritzak argitalpenen berri helarazi ahal izango die interesdunei, SMS edo posta elektronikoa bidez. Abisu horiek ez dute inolaz ere egindako jakinarazpenaren ondorioz izango.

4.– Dirulaguntza emateko ebazpena argitaratu eta hurrengo 10 egun naturaletan uko-egiterik badago, modalitate bakoitzaren erreserben zerrendan ageri eta emandako azken laguntzaren hurrengoak diren eskatzaileei emango zaizkie laguntzak Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

Ondorio horietarako, laguntzak emateko proposamena jakinaraziko die laguntzak emango dituen organoak interesdunei, 10 egun naturaleko epe luzaezinean onar dezaten. Proposamena onartutakoan, beka emateko ebazpena emango da, eta interesdunei jakinaraziko zaie.

5.– Aipatutako ebazpenak ez dio amaiera emango administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari.

6.– Ezarritako epean laguntza adjudikatzeko ebazpenik eman edo jakinarazten ez bada, eskabideak ezetsi direla ulertuko da. Kasu horretan, eta nahiz eta Administrazioak espresuki ebazteko betebeharra duen, gora jotzeko errekurtoa jartzeko epea hiru hilekoa izango da, oinarri hauen 1. apartatuan ezarritako epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita.

7.– Aurrekontu-ekitaldiaren amaieran, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira onuradunen zerrenda eta emandako laguntzak.

8. artikulua.– Zuzkidura.

Honako hau izango da laguntzaren zuzkidura, modalitate bakoitzean:

8.1.– Visiting Fellow: 2025-2026 ikasturtean bederatzi hileko egonaldia egiteko laguntzaren zuzkidura 130.038 eurokoa da, bi laguntzetarako. Zenbateko hori honela banakatzen da:

a) 107.438 euro Clare Hall-i ordainduko zaizkio (hilean 5.969 euro), College-ren zeharkako gastuak estaltzeko, Clare Hall-ek emandako laguntza tekniko barnean dela, bai eta ikertzailearen ostaturak eta mantenua ere. Ostaturako zuzkidurak hauek estaltzen ditu: pertsona batentzako gela bakarreko apartamentu baten alokairua, elektrizitatea, berokuntza eta udal-tasak. Gela gehiagoko apartamentu bat behar izanez gero, laguntzaren onuradunak ordainduko du aparteko kostua. Mantenuak astelehenetik ostiralera bitarteko aldia hartzen du. Kopuru horrekin, gainera, beste kontzeptu batzuk ere estaltzen dira, hala nola ikerketa-gastuak, establezimendu-gastuak eta ekitaldiak (profesionalak, harrerak, kontzertuak).

b) 21.600 euro, ikertzaile bisitariari ordaintzeko (hilean 1.200 euro), laguntza gisa. Laguntzaren zenbatekotik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) konturako atxikipenak kendu behar dira, zerga hori arautzen duen araudia aplikatuz dagozkionak. Era berean, emandako laguntza guztien berri jakinaraziko zaie zerga-agintariei, indarrean dagoen zerga-araudian ezarritako baldintzetan eta hor finkatutako ondorioetarako.

c) 200 euro (laguntza bakoitzeko), bisa izapidetzeko, beharrezkoa denean.

d) 300 euro (laguntza, bakoitzeko), Clare Hall-era joan-etorriko bidaia bat egiteko.

8.2.– Post Visiting Fellow: 2025-2026 ikasturtean bi hileko egonaldia egiteko laguntzaren zuzkidura 29.676 eurokoa da, bi laguntzetarako. Zenbateko hori honela banakatzen da:

a) 11.938 euro (laguntza bakoitzeko) Clare Hall-i ordainduko zaizkio (astean 1.492 euro), College-ren zeharkako gastuak estaltzeko, Clare Hall-ek emandako laguntza teknikoak barnean dela, bai eta ikertzailearen ostaturak eta mantenua ere. Ostaturako zuzkidurak hauek estaltzen ditu: pertsona batentzako gela bakarreko apartamentu baten alokairua, elektrizitatea, berokuntza eta udal-tasak. Gela gehiagoko apartamentu bat behar izanez gero, laguntzaren onuradunak ordainduko du aparteko kostua. Mantenuak astelehenetik ostiralera bitarteko aldia hartzen du. Kopuru horrekin, gainera, beste kontzeptu batzuk ere estaltzen dira, hala nola ikerketa-gastuak, establezimendu-gastuak eta ekitaldiak (profesionalak, harrerak, kontzertuak).

b) 2.400 euro, ikertzaile bisitari bakoitzari ordaintzeko (astean 300 euro), laguntza gisa. Laguntzaren zenbatekotik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) konturako atxikipenak kendu behar dira, zerga hori arautzen duen araudia aplikatuz dagozkionak. Era berean, emandako laguntza guztien berri jakinaraziko zaie zerga-agintariei, indarrean dagoen zerga-araudian ezarritako baldintzetan eta hor finkatutako ondorioetarako.

c) 200 euro (laguntza bakoitzeko), bisa izapidetzeko, beharrezkoa denean.

d) 300 euro (laguntza bakoitzeko), Clare Hall-era joan-etorriko bidaia bat egiteko.

Horrez gain, onuradunak istripu-asegurua eta erantzukizun zibileko aseguruak izango ditu, bai eta, atzerriko egonaldiarentako, bidaiako laguntza-asegurua ere, besteen osagarri. Azken hori, interesdunak hala eskatuz gero, ezkontideak eta 25 urtetik beherako seme-alabek ere baliabiz dezakete, egonaldian berarekin badira. Aseguru hori baliagarria izango da, era berean, antolamendu juridikoak onartzen dituen edozein frogagiriren bitartez egiaztatutako izatezko bikoteentzat.

Diruz lagundu daitezkeen gastuei buruz artikulu honetan arautu ez den guztirako, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikuluan adierazitakoa beteko da.

9. artikulua.– Laguntza ordaintzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Clare Hall-i transferituko dizkio funtsak, laguntza honen ordainketa kudeatzeko erakunde laguntzailea baita. Honela egingo da ordainketa:

1.– Deialdia ebatzi ondoren eta onuradunak emandako laguntza onartu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak xedapen honen 8.1.a) eta 8.2.b) artikuluan kontsignatutako zuzkidura osoaren % 75 emango dio Clare Hall-i.

Bigarren ordainketa gainerako % 25 izango da, eta emandako laguntza osoaren gastua justifikatu eta gero ordainduko da. Egindako gastu hori frogatzeko, fakturak edo agiri baliokideak aurkeztu beharko dira. Agiri horiek ikasturte akademikoa amaitu ostean aurkeztu beharko dira, egindako ekintzei buruzko azalpen-memoriarekin eta kostuen balantze ekonomiko xehatuarekin batera.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak bi zatitan ordainduko dio laguntza onuradunari.

Lehenengoa, 8.1.b) eta 8.2.b) artikuluetan adierazitako zenbatekoaren % 75 eta 8.1.c.d) eta 8.2.c.d) artikuluetan adierazitako zenbateko osoa, onuradunak laguntza onartu ondoren ordainduko da (12. artikulua). Bigarrena, gainerako % 25, 2026an ordainduko da, jarduera amaitu ondoren, eta aplikazio informatikoaren bidez dokumentu hauek aurkeztu ondoren:

a) Egonaldiaren ganean Clare Hall-en arduradunak egindako egiaztagiria, hasiera- eta bukaera-egunak zehaztuta.

b) Amaierako memoria, balantze zientifikoarekin batera. Bertan deskribatuko da egindako lana, argitalpenen, patenteen edo ikerketaren bestelako emaitzen erreferentzia barne hartuta.

c) Egindako gastuaren ziurtagiria, bidaia-gastuei eta bisa-izapideei buruzkoa. Honako hauek aurkeztuko dira ziurtagiriarekin batera:

– Garraio publikoan egindako bidaien txartelak eta fakturak.

– Bisa izapidetzeko garraio publikoan egindako joan-etorrien eta izandako tasa-gastuen txartelak eta fakturak.

Onuradunak eguneratua izan beharko du hirugarrenen altaren agiria. Hirugarrenen alta elektronikoki izapidetu behar da helbide honetan erabilgarri dagoen zerbitzuaren bidez: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/web01-tramite/eu/>

3.– Bidaia-gastuetarako eta bisa izapidetzeko emandako laguntza bidaien eta bisa-izapideen benetako kostua baino handiagoa bada, onuradunak itzuli egin beharko du benetako kostuaz gainekoa.

4.– Baldin eta dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzaren bat aldatzen bada, eta, betiere, laguntza horrekin batera bestelako administrazioen edo ente publiko edo pribatuaren dirulaguntzak eskuratzen badira, edo, bestela, helburu bera aurrera eramateko bestelako diru-sarrerara edo baliabideak lortzen badira, laguntza ematea ekarri duen erabakia aldatu ahal izango da, bat etorritik Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36.3 eta 40. artikuluetan xedatutakoarekin, bai eta 9.4.m artikuluan ezarritakoarekin ere, betiere dirulaguntzaren arauak onuradun izateko ezartzen dituen gutxieneko eskakizunak betez gero.

Zientzia Politikako Zuzendaritzak, egoki iritziz gero, informazio osagarria eskatu ahal izango du, eta, horretaz gain, zuzendaritzari berari atxikitako pertsona bati edo batzuei eskatu ahal izango dio/die beharrezkoak diren ekintzak egiteko, laguntza zertan erabili den ikusteko.

10. artikulua.– Bateriaezintasuna.

Laguntza hau ez da bateragarria helburu bererako ematen diren antzeko dirulaguntzekin.

11. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretatik, dirulaguntza eman izanaren ebazpena jakinarazten zaion egunetik hasi eta hamar egun naturaleko epean onuradunak laguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, laguntza onartutakotzat joko da.

b) Eman den xede zehatzerako erabiltzea dirulaguntza.

c) Eskatzen duten informazio guztia ematea Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, laguntzen helburua fiskalizatzeko lagungarria izan dakien.

d) Clare Hall-eko Visiting Fellow gisa dagozkion ohiko ekitaldietan parte hartzea, bai eta Euskal Herriaren gaineko ezagutza hedatzeko jardueretan ere, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak hala eskatuz gero.

e) Egonaldia amaitu ostean, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailari eta Clare Hall-i txosten bat bidaltzea, egindako ikerketari buruz, bai eta Cambridgen zein Euskal Autonomia Erkidegoan parte-hartzaile izan den bestelako jardueri buruz.

f) Laguntza-eskabidearen aplikazioaren bidez, Clare Hall-eko egonaldiaren jarraipena egiteaz arduratzen den pertsonak sinatuta, hasiera-data zehatza jasotzen duen ziurtagiria aurkeztea.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura jasotako laguntzei dagokienez indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ezartzen diren gainerako betebeharrak guztiak, eta, bereziki, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan xedatutakoa.

h) Zergen arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, eta dirulaguntzak itzultzekoak ordainduta izatea.

i) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 13. artikuluan aurreikusitako debekuen eraginpean ez egotea.

12. artikulua.– Uko egitea.

1.– Uko-egiteak Zientzia Politikarako zuzendariari jakinaraziko zaizkio, idazki baten bidez, onuradunak berak sinatuta, eta bertan adieraziko dira zein diren uko egiteko arrazoiak eta uko-egite horrek zer egunetatik aurrera izango dituen ondorioak. Jakinarazpen hori aplikazio telematikoaren bidez egingo da, uko-egiteak ondorioak izan baino 10 egun natural lehenago.

2.– Uko-egiteak Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez onartuko dira.

3.– Onuradunak laguntzari uko eginez gero, sortu ez diren eskubide ekonomiko guztiak galduko ditu.

Uko-egiterik badago, Zientzia Politikako Zuzendaritzak erreserben zerrendakoak izenda ditzake ikertzaile, modalitate bakoitzean, laguntzari geratzen zaion gainerako aldirako.

13. artikulua.– Ez-betetzeak.

Laguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan zehaztutako kasuetako batean badaude, edo betetzen ez badituzte agindu honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan aipatutako baldintzak edo betebeharrak, edo egiaztatzen bada ez dituztela betetzen dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak edo eskakizunak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritakoaren arabera, hasiera emango zaio laguntza jasotzeko eskubidea galtzeko eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak eta dirulaguntzen arloan aplikatzekoak diren berandutze-interesak itzultzeko prozedurari, hori baita Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 36.1 artikuluko oinarriko araudiaren arabera aplikatu beharrekoa.

14. artikulua.– Datuak babestea.

Eskatzaileen datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko: Laguntzak eta dirulaguntzak (ikerketa sustatzekoak). Informazio hau emango da:

Arduraduna: Zientzia Politikako Zuzendaritza - Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila

Helburua: Ikerketa finantzatzea eta bultzatzea.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatuz eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

– 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

Hartzaileak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ogasun eta Finantza Saila.

– Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

Eskubideak: Eskatzaileak eskubidea du datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultagai dago helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/rgpd/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/054300-capa2-es.shtml>

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua aldizkari ofizial berean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 21a.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.

ERANSKINA

ESKABIDE-INPRIMAKIA	ERREFERENTZIA	
	BARNE-KODEA	
CLARE HALL-EN IKERTZAILE BISITARI IZATEKO BEKA. CAMBRIDGEKO UNIBERTSITATEA.		

A.– ESKATZAILEAREN DATU PERTSONALAK

Abizenak, izena								
NAN/AIZ		Sexua	<input type="checkbox"/>	Gizonezkoa	<input type="checkbox"/>	Emakumezkoa	Jaioteguna	
Titulazio akademikoa								
Helbidea							PK	

Abisu telematikoetarako datuak

Helbide elektronikoa		Tel. mugikorra		Tel. finkoa	
----------------------	--	----------------	--	-------------	--

B.– EGONALDIAREN MODALITATEA

Visiting Fellow	<input type="checkbox"/>
Post Visiting Fellow	<input type="checkbox"/>

C.– PROPOSATUTAKO IKERKETA-GAIA

Ikerlanaren izena	
-------------------	--

Diziplina	
-----------	--

Hasiera-data		Egonaldiaren iraupena	
--------------	--	-----------------------	--

Bisatua beharko du	<input type="checkbox"/>	Bai	<input type="checkbox"/>	Ez
--------------------	--------------------------	-----	--------------------------	----

Ezkontidearekin edo seme-alabekin joango da?	<input type="checkbox"/>	Bai	<input type="checkbox"/>	Ez
--	--------------------------	-----	--------------------------	----

Baiezkoa bada, erantsi NANak eta familia-liburuaren kopia	
---	--

D.– ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Eskatzaileak hau ADIERAZTEN DU:

1.– ESKATU DIO / EZ DIO ESKATU (erantzun dagokiona) helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo ente publiko edo pribaturen bati.

BAIETZ erantzunez gero, eskabidearen kopia erantsi behar da.

2.– LORTU DU / EZ DU LORTU (erantzun dagokiona) helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo ente publiko edo pribaturen batetik.

BAIETZ erantzunez gero, emate-agiriaren kopia erantsi behar da.

3.– SARTUTA DAGO / EZ DAGO SARTUTA (erantzun dagokiona) itzulketa- edo zehapen-prozedura batean.

BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia erantsi behar da.

4.– BADU / EZ DU (erantzun dagokiona) ordainketarik egiteke, dirulaguntzak itzultzea dela-eta.

BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia erantsi behar da.

5.– BADU / EZ DU (erantzun dagokiona) dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalen bat edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren bat.

BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar da.

6.– EZ DAGO / BADAGO (erantzun dagokiona) sartuta diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluan ezarritako gainerako debekuetako batean.

EZETZ erantzunez gero, dagozkion egiaztagiria erantsi beharko dira eskabidearekin batera.

7.– BETETZEN DITU / EZ DITU BETETZEN (erantzun dagokiona) onuradun izateko baldintza guztiak.

EZETZ erantzunez gero, dagozkion egiaztagiria erantsi beharko dira eskabidearekin batera.

8.– Konpromisoa HARTZEN DU/ EZ DU HARTZEN (erantzun dagokiona) Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren Ikerketa Zuzendaritzari jakinarazteko dirulaguntza emateko eskatu eta kontuan hartzen den baldintzaren bati eragiten dion egoera-aldaketa oro, bai eta edozein administrazioaren edo ente publiko zein pribaturen eskutik helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak jaso izanaren berri emateko ere.

EZETZ erantzunez gero, dagozkion egiaztagiria erantsi beharko dira eskabidearekin batera.

9.– EGIAZKOAK DIRA / EZ DIRA EGIAZKOAK (erantzun dagokiona) eskabide honetan agertzen diren datuak; ez badira, bere gain hartuko du datuen zehaztasun ezak dakarren erantzukizuna.

EZETZ erantzunez gero, dagozkion egiaztagiria erantsi beharko dira eskabidearekin batera.

10.– SARTUTA DAGO / EZ DAGO SARTUTA (erantzun dagokiona) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako gainerako debekuetako batean. Zehazki, egoera hauetakoren batean:

a) Epai irmo bidez, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorra jaso izana edo prebarikazio, eroskeria, diru publikoen erabilera bidegabea, influentzia-trafiko, iruzur eta ordainarazpen ilegal edo hirigintza-delituak direla eta zigorra jaso izana.

b) Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaera egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratu izatea, hartzekodunen konkurtsoan deklaratu egotea (salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek efikazia lortu badu), esku-hartze judizialaren menpe egotea edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana, kausaren batean errudun deklaratu izateagatik.

d) Pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen ordezkari direnak egoera hauetakoren batean egotea: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bataerantzintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bataerantzintasunen araubideko egoeraren batean eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoeraren batean. Edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu batean egotea, arau horretan edo gai hauek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.

e) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez izatea, erregelamenduz zehazten den moduan.

f) Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean izatea.

g) Dirulaguntzak itzultzearen ondoriozko betebeharren ordainketa egunean ez izatea, erregelamenduz zehazten diren terminoetan.

h) Ebazpen irmo bidez dirulaguntzak eskuratzeko aukera galtzeko zehapena jaso izana, lege honetan edo beste batzuetan zehaztutakoari jarraituz. Zehazki, ezingo dira dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-aldi osoan. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, eta estatu-legediak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

i) Pertsona fisikoak edo juridikoak (publiko edo pribatuak) Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astunengatik zehatuta egotea, dagozkion neurri zuzentzaileak gauzatu eta zehapena bete arte.

j) Desgaitasuna duten pertsonentzat lege ezarritako erreserba-kuota bete ez izana, kuota hori betetzeko neurri alternatiboak martxan jarri direla egiaztatu gabe.

BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar da.

Eskabidean ageri diren datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta izen honetako tratamendu-jardueran sartuko dira: Dirulaguntzak eta laguntzak.

- Arduraduna: Ikerketa Zuzendaritza - Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila
- Xedea: Ikerketa finantzatzea eta bultzatzea
- Legitimazioa:

Tratamendua beharrezkoa izatea interes publikoaren aldeko eginkizun bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

- Hartzaileak:

Patente eta Marken Espainiako Bulegoa, BOE, EHAA.

- Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Hemen duzu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza, kontsultatu nahi izanez gero: www.euskadi.eus/transparencia-y-derecho-a-la-informacion/web01-ejeduki/es/transparencia/054300-capa2-es.shtml

